ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

| | |
|---|---|
| **ESP.** | **2019IPLE0009** |
| **ATALA.** | **IDAZKARITZA** |
| **GAIA** | **ALBIZTURKO UDALEKO OHIKO BILKURA** |

**2019-10-29ko UDALEKO OHIKO BILKURA**

Albizturren, 2019ko urriaren 29an, arratsaldeko 19:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Aingeru Galarraga Barandiaran
- Larraitz Ezeiza Artola
- Unai Dorronsoro Olarra

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Mikel Galarza Arrue
- Aitziber Orbegozo Arrospide

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. 2020KO ORDENANTZA FISKALAREN HASIERAKO ONARPENA ETA EGUTEGI FISKALAREN ONARPENA
4. ERROLDAREN LAGAPENARI BURUZKO HITZARMENA - MUGI
5. HONDAKINEN BILKETA SISTEMA
6. PARTE HARTZE PROZESU PROPOSAMENA
7. DIRULAGUNTZA ESKAERAK
8. TOLOSALDEKO EMAKUME ETXEA
9. KONTRATAZIO ZENTRALA: ENERGIA ESPEDIENTEA
10. GALDERA ERREGUAK

## 1. AURREKO AKTAK ONARPENA

2019-09-24ko akta aho batez onartu da.

## 2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2019ko 80 eta 96 bitarteko dekretuen berri eman da.

## 3. 2020KO ORDENANTZA FISKALAREN HASIERAKO ONARPENA ETA EGUTEGI FISKALAREN ONARPENA

Momentu honetan urte arteko Kontsumorako Prezioen Indizea %0,5ekoa denez, 2020. urterako Ordenantza Fiskaletan orokorrean %0,5eko igoera egitea adostu da (hala ere zerga eta tasa batzuk konstante mantenduko dira).

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

**Lehena.-** 2020ko Ordenantza Fiskaletan %0,5ko igoera aplikatzea.

**Bigarrena.-** 2020ko Ordenantza Fiskalen hasierako onarpena eta Egutegi Fiskala GAOra bidaltzea.

## 4. ERROLDAREN LAGAPENARI BURUZKO HITZARMENA - MUGI

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoak udal erroldaren datuak egiaztatzeko hitzarmena proposatu digu.

2014ko martxoaren 4an MUGI sistema indarrean sartu zen, Gipuzkoako garraiobide guztietan aplikatzen den tarifa bateratuko sistema. Sistemaren euskarria MUGI txartela da, pertsonala eta besterenezina dena.

Tarifa hobaridunetarako eskubidea gazte, adineko, ezindu, sozial eta familia ugariek dute, baina horretarako ezinbestekoa da Gipuzkoako Udalerriren batean erroldaturik egotea.

Hitzarmenaren helburua, MUGI talde berezien garraio publikoko txartela eskuratu nahi duten erabiltzaileak Gipuzkoako Udalerriren batean erroldatuta daudela egiaztatu ahal izatea da.

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

**Lehena.-** Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoarekin udal erroldaren datuak egiaztatzeko hitzarmena sinatzea.

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoari erabakiaren berri eman eta beharrezko dokumentazioa osatzea.

## 5. HONDAKINEN BILKETA SISTEMA

Tolosaldeko Zabor Mankomunitateko Gemmak bidalitako bilketa zerbitzuaren kosteen banaketa orriak aztertu ditugu.

Proposatzen diren 2 aukeren artean egokiena erabakitzeko garrantzitsua da Albiztur bezalako herri batean urtean jasoko litzateken organiko tona kopurua ezagutzea, eta gaiari buruz hitz egin ahal izateko Gemmari bilera eskatzea adostu da.

## 6. PARTE HARTZE PROZESU PROPOSAMENA

Orendaingo alkatea izan zen Gorka Egiak udalei laguntza eskaintzeko enpresa sortu du, eta Albizturren parte hartze prozesu bat martxan jartzeko proposamena luzatu digu.

Gehiegizkoa iruditzen zaigu momentu honetan parte hartze prozesu bat martxan jartzea, baina hautetsiek eta idazkari kontu-hartzaileak esperientzia gutxi dutenez, interesgarria izan daiteke Gorka Egiaren zerbitzuak kontratatzea alor konkretu batzuetarako (batez ere etxebizitzekin loturikoak).

## 7. DIRULAGUNTZA ESKAERAK

- **Igeriketa kanpainako autobusa ordaintzeko dirulaguntza**: Dirulaguntza emateko prestutasuna dago, baina zenbateko gastua izango duten jakin beharra dago dirulaguntza kuantifikatu ahal izateko.

- **Euskara ikasteagatik dirulaguntza**: Dirulaguntza ematea onartu da, eta Beizaman duten mota honetako dirulaguntza hartuko da eredutzat. 1.050 €-ko partida sortuko da horretarako 2020. urteko aurrekontuetan.

- **Bizkor guraso elkartearen dirulaguntza:** Dirulaguntza emateko prestutasuna dago, baina beraiekin bilera bat egitea adostu da igandetako zine emanaldiekin sortu den ezinegonari eta dirulaguntzari buruz hitz egiteko.

## 8. TOLOSALDEKO EMAKUME ETXEA

Brixi Arruek parte hartu du Tolosaldeko Emakume Etxea sortze prozesuko bileratan eta berak eman digu proiektuaren berri.

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

**Lehena.-** Tolosaldeko Emakume Etxearen mozio proposamena onartzea.

**Bigarrena.-** Inguruko herrietan egin den moduan, aurrekontu partidaren inguruko erabakia aurreragoko uztea.

## 9. KONTRATAZIO ZENTRALA: ENERGIA ESPEDIENTEA

Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak, argindar horniduraren kontratazio espediente bat irekitzeko asmoa du eta Albizturkoko Udalari ere atxikitzeko gonbitea egin zaio.

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

**Lehena.-** Energia elektrikoaren horniduarako esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea.

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Kontratazioaren Zentralari erabakiaren berri eman eta beharrezko dokumentazioa osatzea.

## 10. GALDERA ERREGUAK

**- Olateaga bideko obrak :** Gabiri enpresakoak astelehenean, urriak 28an, hasi ziren Olateagako bideko 3. faseko obrekin.

**- Ur zikinak:** Gipuzkoako Aldundiarekin bilera oraindik ez dugu egin oso lanpetuta dabiltzalako, baina teknikari batekin hitz egitea lortu dugu, egon daitezkeen aukera desberdinen berri eman digu eta bilera eguna finkatzeko deitzekotan geratu da.

**- Yu-rekin bilera:** Kontratua indarrean dago, baina ordutegia egokitzeko, sukaldea irekita mantentzeko eta eskolako haurrei menu egokia emateko eskatu diogu. Urte amaieran beste bilera bat egitekotan geratu gara.

**-Azarola Goikoa:** Azaroak 7an, ostegunean, bilera izango dugu udaletxean Azarola Goikoa eta Azarola Behekoekin, errepidean jarritako hesiak sortutako arazoa konpontzeko asmoz.

Osoko bilkura, 21:15etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2019ko azaroaren 4ean

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 13:39:00 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:25:34 +02'00'